



KUTXA Enplegatuen Elkarteak	Xendazaletasun atala
112. zka. 5 euskal hiribururen 23. Zeharkaldi Handia	Zestoa-Pagoeta eremua 2015/6/13-14

Adiskide xendazaleok:

Zestoako herri txikitik irtengo gara, GI-631 errepidea zeharkatu eta Gurutzeako kota apalera igoko gara; gure bidetik hain hurbil kokatua dagoenez, aukera ona genuke desbideratu eta ezagutzeko, ziur asko ezezaguna izango baita gehienentzat.

Gero, jaitsiera beste herri txiki batera, Aizarnazabalera. Herri txiki hau 1861ean banatu zen Zumaia-etik. Nabarmentzekoa da San Migel parrokia bere kanpandorre handiarekin. XVI. mendekoa, nahiz eta gero erreformak izan zituen XVIII. mendean. Beste udalerri askotan bezala, bada pilotaleku bat elizari atxikia.

Nabarmentzekoa Etxabe jauregia ere, han jaio baitzen B. de Etxabe magistratu ospetsua. Eta beste txoko kutun bat San Kristobal basiliza da. Zelai gunean, historiak dioenez, basiliza hau Aizarnazabalgo lehen parrokia izan zen.

Bitxia da, baina "Baseliza" izeneko baserri bati atxikia dago. Ohargarria da San Kristobalen irudi interesgarri eta originala, Jesus baitarama bizkarrean. Ziur asko XVI. mendeari dagokio, irudi honetan santuak harridura-aurpegia du.

Hemendik aurrera igo egingo gara Indamendiko "gurutzerantz", ikuspegi zoragarriak dituelarik Zarautz eta inguruneen gainean. Eta Urdanetara iritsi baino lehen, nahi izanez gero, eskura izango dugu Txatxarromendi gailurra ere.

Eta gero azken igoaldia, Pagoetako bidetik; ondoren, Laurgaineko desbiderapena utzi, "Pagoetako Jolas-gunera" igo eta han bukatuko dugu etapa polit hau, gure azken helmugatik hurbil, gogoratuko duzun bezala, Donostian baita bukaera, eta hurrengo etapan iritsiko gara bertara.

Xendazaleok, animo, natura zain dugu-eta!!!

Ibilbidea: Zestoa-Pagoeta eremua

Beharrezko denbora										5,10	
Goranzko desnibel metatua										1.055 metro	
Beheranzko desnibel metatua										998 metro	
Zeharretara egin beharreko distantzia										18.375 metro	
	Ingurunea	1		Orientazioa	2		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:25
Irteera-ordua	07:30
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea
Prezioa	28 euro

Izena emateko azken eguna: 2015-06-11ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzailearik, irteera bertan behera geratuko da.

b/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira:
alahuerta@kutxabank.es / jlurretabizkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700)..

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-Lorenzo Urretabizkaia

